

AVARII PULTSERA



PONPOX TALDEA 2AHH: ALBA VINAGRE, YAIZA MAGALLANES, ELENE GASTAÑAGA ETA ZAYRA PIRES

2022ko Urtarrilaren 13a.

SARRERA

Gure proiektua aurkeztetu baino lehen, lehenengo gu aurkeztuko gara.

2. mailako Aho eta Hortz Higieneko ikasleak gara eta gure taldea 4 neskez osatuta dago; Zayra Pires, Yaiza Magallanes, Alba Vinagre eta Elene Gastañaga, 20 eta 21 urte bitarteko gazteak gara eta gure helburua nerabe, gazte edo edozein adineko jendea kaleetan salbu sentitzea da.

Aho eta Hortz Higieneko 2. maila ikasten ari garenez, enpresako gure moduluan proposatu ziguten Startinnova proiektuan sartzea. Hasieran hainbat ideia bota genituen gizartean arazoak ekiditeko eta azkenean gure proposamena larrialdietako pultsera bat eraikitzea izan zen eta horregatik lan hau aurrera eraman dugu eta txosten hau egin dugu.

Gure proiektua pultsera bat egitea da, pultsera hau eraikitzerakoan erabiki dugu gure publikoa emakumeak eta LGTBIQ+ kolektiboa izatea, honez aparte beste pertsonak ere erosi dezakete arriskuan sentitzen badira pultsera hau edukitzeko. Pultsera hau aktibatzerakoan Ertzaintzari eta osasun langileei abisua emango die eta biktima dagoen tokira joango dira bertan dauden pertsoneri laguntzeko.